



## EUSKAL LAUBURUA

*Aita Zenon Uriguen, Pasiotarra*

**L**auburu berbari bere jatorria euskera izkuntzatik dator kio “lau”, cuatro, eta “buru” cabeza Eta zer esan nai dau? : Euskal Erriak aukeratutako ikur eta sinbolo bat, “lau buru” dituana. Badira beste aburu edo iritzi batzuk, berba ori latinetik etorria dala eta “labarum” datorrela zelta erritik “labaro”. Fidel Pita gizon jakintsuak, ostera, ziurtatzen dau “labarum” euskeraren jatorritik datorrela, eta Octavio Augusto garaian, labarum euskeratik latinera eratua izan zala. Historiak zer esaten dausku? Labarum ikurrari Erromako Konstatino Kaizar jaunak, bere aginduz ikur oni gurutzea jarri eutson Kristoren monograma ezarririk.

Goya ospetsuak, 1805, bere “lira de la Marquesa de Santa Cruz” arte lanean, Lauburua jarri eta apainduraz jantzi eban.



## GURE AURRETIKOAK.

Arrigarri eta jakingarria da Antziñaroan gure aurretikoak izandako bizi moduak ezagutzea. Bai errialde bakoitzak euren izaerak eta bizierak, oiturak eta gogoetak adierazteko ikur eta markak, banderak eta ezaugarriak oso txukun eta arte ederrez asmatu agirian jartzea erabaki eben erriaren begi onez. Aztertu eta ezagutu dagiguzan gai onetan historiak agertzen dauskuzan testigantza batzuk. Bai, historiak, datarik jarri barik, ara emen zer argitzen dauskun. Lauburu eta beste antzeko irudiak eta ezaugarriak sarritan agertzen dirala Celtak eta Germanoak egindako zizel-irudi eta grafikoetan.

Galizian ta Asturiasen ikusten dira, ango garaietan, Horreos, Lauburu antzeko “tetrasqueles”. Baita be ikusten dira “esvasticak” Aragoi eta bere inguruetako erriealdetan. Baña Euskal erriaren sinbolorik ezaugarriena beti izango da Lauburua.



## LAUBURUAREN ESANGURA.

Lauburu irudiak zenbat eta zelako adierazpenak izan ditu? Ona emen: Batzuentzat eguzkiaren antz-irudia. Beste batzuentzat bizitzaren ezaugarria, baita be eriotzarena, eta origaitik jartzen da ildakoen illobietan. Gure errian Lauburua agertzen da bandera eta beste ezaugarrietan XVI gizalditik gora, baita ere etxeurreko ate buruetan.

## SABINO ARANA.



Sabino Arana Goirik, Lauburua gogoz onartzen dau Euskadiren ezaugarri berebizikoa eta errikoa dalako. Sabinen burua borbor irakitan dabil gure aberriaren etorkizunari buruz. Gure aberrian iritzi ezberdiñak ikusten dauz. Ara emen: Erriaren Adizkide Elkargoak Irurak Bat dau elburutzat eta iru eskuak alkar gurutzatuak ikurtzat. Iparragirrek Laurak Bat dau elburutzat eta Gernikako Arbola ikurtzat.

*Sabin Aranaren gogoia beti izan da: Zazpiak Bat, au da, Euskal Erria osoa izango da gure elburua, eta Lauburua gure ikur-ezaugarria Egiaz gure historian menderik mende Lauburua izan da Euskadiren zorioneko ezaugarria*

*Lauburuak beti izango ditu lau aizetara besoak zabaldurik eta Euskal gizakia besarkaturik.*

